

Donostia, 2021eko ekainaren 18a

KONTROL MOZIOA, ISABEL II.AREN HIRIBIDEKO BIDEGORRIARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegui eta EH Bildu taldeko zinegotzi Garbiñe Alkiza Lópezek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten dute, Isabel II.aren hiribideko bidegorriari buruz, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko otsailaren 25ean, Tokiko Gobernu Batzarrak Amara Berriko Isabel II.aren hiribidea berrurbanizatzeko proiektua gauzatzeko esleipena onartu zuen –aurrekontua 900.000 euro inguru zen–. Berrurbanizazio proiektu horren bidez, oinezkoen zonak handitu eta zirkulazio bideak eta aparkalekuak berrantolatu nahi izan dira, hiri paisaia biziberritzeko eta ingurunea indartzeko. Eremuaren zati bat oinezkoentzat jarri da, baina, orain arte bezala, bi noranzkoetan ibil daitezke ibilgailuak. Bestalde, 30 errei bat jarri da, garraio publikoa, autoak eta bizikletak batera ibil ahal izan daitezen galtzadan.

Idazkiak dioenez, proposamen horrek babes zabala izan du, hala nola: Amara Berriko eta Katalina Erasoko guraso elkarreana; bi ikastetxe publiko horietako zuzendaritzena; Amara Berri, Ikasbide eta Illuki elkarreana, bai eta Kalapie txirrindularien elkarreana ere.

Helarazi duten proposamenak, alde batetik, semaforizazioa aldatzea planteatzen du; hala, egungo sekuentzia semaforikoa (1:30 minutukoa) 15 segundo luzatuko balitz, bizikleten trafikoa arintzea lortuko litzateke. Bestalde, bizikletentzako berariazko errei bat jartzea proposatzen dute: horrek segurtasun handiagoa emango luke, eta bizikletaren erabilera erraztu eta sustatuko luke. Soilik bizikletentzat izango den errei bat lortzeko, planteatzen dute ibilgailuak baterian aparkatu beharrean lerroan aparkatzea.

Obrak egikaritzeko izan diren atzerapenen ondorioz, une egokia da auzo eta gizarte kolektiboek proposatutako aldaketak sartzeko. Gainera, proposamen horrek segurtasuna emango lieke bizikletaz mugitzen diren pertsoneri, eta mugikortasun aktiboa sustatuko luke. Orain, autoek, garraio publikoak eta bizikletek batera erabiltzen dute 30 erreia, baina horrek pertsona askori zaildu egiten die bizikleta garraiobide gisa erabiltzea.

Hil honetako batzordean, Mugikortasuneko zinegotziak uko egin zion auzokoek proposatutako aukera aztertzeari. Alabaina, auzo elkarteak dio proiektua bideragarria dela eta alkateak berak, duela gutxi auzora egindako bisitan, proposamen horri kasu egiteko zer aukera zeuden aztertzea planteatu zuela.

Hori horrela, uste dugu orain dela ekiteko garaia eta taldeen eta herritarren eskaerei erantzuteko garaia.

Hori dela eta, hau da behean sinatzen duten zinegotziek aurkezten duten

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Amara Berriko auzotarren eskaerei kasu egiteko eta bidegorri bat jartzeko, Isabel II.aren hiribidean mugikortasun aktiboa posible izan dadin.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin ditzala egin beharreko aldaketa guztiak Isabel II.aren hiribideko semaforizazioan, bizikleten trafikoa arina eta segurua izan dadin.

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia

Haizea Garay Gallastegui
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia